

Software librea etxean



DIANA FRANCO EGUREN

Etxepare Lizeoko ikasleek software librea oinarrituriko sistema eragilea zelan instalatu daitekeen partekatzen duen eskuliburu txiki bat sortu dute. Liburuxka horrekin, sistema eragile komertzialen aurrean, hala nola Windows 11, zaharkituta geratu diren ordenagailuei bizitza luzatzeko bidea ulergarriagoa egiten dutela uste dut.

Eskuliburua ikusteko aukera izan dut, eta oso ondo azalduta dagoela iruditu zait. Pausoz pauso eta irudi askorekin. Inoiz halakorik egin ez baduzu ere, gutxienez instalazio batek atzetik zein prozesu dituen hobeto ulertzeko gerturapea izan daiteke.

Eskuliburutik interesgarrien iruditu zaidana da egunerokorako gomendatzen dituzten programak; etxean egunerokoan software librea ibiltzeko aukera ugari gomendatzen dituzte. Baina zelan da posible hainbeste programa edozein pertsonaren eskura egotea? Nork finantzatzen du hori guztia?

Gaur egun software librea eremu ugarran erabiltzen da, munduko enpresa nagusiek euren azpiegitura informatikoak mantentzeko darabilte, erakunde akademiko puntakoak software librea egiten dituzte garapen ugari, munduko gobernu ezberdinak subiranotasun teknologikoan urratsak ematen hasiak dira: Frantzia adibidez “La suite numerique” egitasmoarekin. Gainera, gizabanako, enpresa txiki eta ertainez osaturiko ekosistemak ezagutza horri ekarpenak egiten dizkiote etengabe. Horri esker, etxean software librea eguneratua izan dezakegu, ordenagailu berririk etengabe erosi barik. Gailuen bizitza luzatzeko aukera handitzen da. Bestalde, ditugun gailuen sistema eragileek egiten dugun erabilera bideratzeko gaitasuna duten garaiotan, etxean software libredun ordenagailuak erabiltzeak dinamika hauekiko botertzen gaituela uste dut. ●

A25: emakumeen aurkako biolentzia hizpide

BEÑAT BADIOLA ETXEBERRIA

Zuen hipokrisia indarkeria da! lelopean atera da aurtien kale-
ra Euskal Herriko Mugimendu Feminista. Adierazi du zabaltzen ari direla feminismoaren aurkako diskurtsoak “inpunitate osoz” Euskal Herrian. Ikuspegi interseksionala baliatuz, azaldu dute matxismoa hainbat zapalkuntzarekin gurutzatzen dela: “Emakume*, trans eta bollerok jasaten dugun indarkeria ez da ausazkoa; sistema kapitalista, zisheteropatriarkal eta arrazistak” hori betikotzeko dituen egitura eta mekanismoen ondorioa dela nabarmendu dute. Zentzu horretan, ohartarazi dute feministen aurkako mezuak, mezu arrazistak eta mezu transfoboak ari direla zabaltzen hedabideetan, sareetan eta kaleetan. Era berean jomugan jarri ditu “itun patriarkalak” dituzten konplizitate sareak. Adibide gisa, justizia: “justiziak etengabe uzten gaitu babesgabe, eta sinesgarritasuna kentzen digu”.

Itaiak, bere aldetik, klase borrokan zentratu du irakurketa. Salatu du “emakume langileek aurka indarkeria gordina” izaten jarraitzen duela. Adierazi dute, ideia “atzerakoiak” normalizatzen ari direla eskuineko eta eskuin muturreko alderdiak eta eragileak, “emakume langileen aurkako neurriak” hartzen ari diren bitartean. Egoera horren aurrean, Estatu Sozialistaren aldeko alternati-

baren alde egiten dutela adierazi dute, “indarkeria matxista amaitzeak langile klaseko kolektibo ezberdinen zapalkuntzak indartzen dituen gizarte ereduarekin amaitzea esan nahi duelako”. Kritika egin die alderdi politikoei eta instituzioei, esanez horiek indarkeria matxistarekin amaitzeko ez duela bide orrik. Gaineratu nahi izan dute, feminismoaren baitan kokatzen diren zenbait sektore “egitura kapitalistaren” baitan direla.

Emakundek, bere aldetik, *Ez da zure arazoa bakarrik, gurea ere bada* lelopean, gizarteari zabaltu nahi izan dio ardura, indarkeria matxista ez dela emakumeen arazoa soilik, aitzitik, gizarte osoarena dela nabarmenduz. Era horretan, adierazi du indarkeria matxista jasaten duten emakumeen inguruan saretu beharra dagoela. Emakundeko zuzendari Miren Elgarrestak gizartearen ginean jarri du “pilota”.

INDARKERIA MATXISTAK EZ DU ETENIK

2025ean, gutxienez sei emakume eta adin txikiko neska bat hil dira indarkeria matxistaren ondorioz. Hego Euskal Herriko erregistroen arabera, 7.600 salaketa baino gehiago jarri dituzte emakumeek indarkeria matxistagatik –batez beste 20 salaketa egunean–, eta eraso-tzaile gehienak bikotekideak edo bikotekide ohiak izan dira. ●

